



HAUTAKETA PROZESUA: OHIKO PROZESUA. 2022KO URRIAREN 20KO UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA. (2022ko ABENDUAREN 22ko EHAA)

DEIALDI ESPEZIFIKOA: GESTIOKO TEKNIKARIEN (KAZETARITZA) ESKALA (Ohiko prozesua)

LEHIAKETA FASEAREN BEHIN BEHINEKO EMAITZAK ARGITARATZEKO EPAIMAHANAREN ERABAKIA.

Epaimahaiko kideak: María Romero Pérez (lehendakaria), Alberto Zabala Bengoa (kidea), Idoia Blasco Cueva (kidea), María Carmen Aguirre Irisarri (kidea), Juan Carlos Castillo Martínez (idazkaria)

Hautaketa-prozesu honetan interesa duten pertsonen merezimendu-alegazioak jaso ondoren, epaimahai honek bidalitako dokumentazioa aztertu du, oinarri espezifikoetan aurreikusitako irizpide orokorren arabera baloratzeko.

Alegatutako merezimenduen aniztasuna kontuan hartuta, eta berdintasun- eta merezimendu-printzipioak errespetatzea oinarri hartuta, mugak zehaztu dira irizpide orokorren barruan. Aurrekoarekin bat etorritik, eta zerrenda zehatza eta baztertzaila egiteko asmorik gabe, Auzitegi honek egokitzat jotzen du Erabaki honi irizpide horien zerrenda eranstea.

Deialdiaren zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoaren laugarren puntuan jasotakoarekin bat deialdi espezifiko guztietako alegatutako eta egiaztatutako merezimenduen balorazioa egin eta gero, aipatutako hautaketa-prozesuaren epaimahaiak

HONAKO HAU IRAGARRI DU:

LEHENENGOA. – Lehiaketa fasearen Gestioeko Teknikarien (Kazetaritza) Eskalaren deialdi espezifikoaren behin-behineko balorazio-zerrenda argitaratzea.

BIGARRENA. – Zerrendak ikusgai egongo dira EHUko lan-eskaintzen atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp), hautagaiek kontsulta ditzaten.

HIRUGARRENA. – Zazpi lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezten, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Erreklamazioak EHUko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar izango da.

Leioan, sinadura elektronikoaren datan

Juan Carlos Castillo Martínez
Epaimahaiko idazkaria



1. ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN EMANDAKO ZERBITZUAK

- ✓ Kontuan hartu dira soilik eskabideak aurkezteko epea amaitu arte lan eginikoaldiak; hau da, 2023ko urtarrilaren 30era arte (egun hori barne).

Justifikazio agirian ez bada agertzen aldi baten amaiera data (pertsonak lanean jarraitzen duelako ziurtagiria eman den egunean), amaiera datatzat hartu da 2023ko urtarrilaren 30a, edo ziurtagiriaren sinadura data, lehenagokoa balitz.

- ✓ Esperientzia akreditatu behar zen dagokion Administrazioak emandako zerbitzuen ziurtagiriaren bidez, baloraziorako ezinbesteko informazio guztia jasota (5.2 eta 5.3 Oinarri Espezifikoak).

Horregatik, ez da onartu lan bizitzari buruzko txostenen, kontratu kopien, izendapenen, nominen eta abarren bidez egiaztaturiko zerbitzurik, aurkezturiko dokumentaziotik baloraziorako behar ziren datu guztiak lortu ahal izan direnean izan ezik.

Ez da baloratu ere, zerbitzuen ziurtagiri ofizialean jasota egon arren, deituriko Eskalarekiko baliokidetasuna ezartzea eragozten duen datu garrantzitsuren bat falta duen aldirik (adibidez, Titulazio Taldea).

- ✓ UPV/EHUn eginikoaldiak ofizioz zenbatu dira, betiere alegatu badira eta oinarrien arabera zenbatu badaitezke.

Alegaturiko eta justifikatu gabeko beste Administrazio Publiko batzuetako aldiei dagokienez, baloratu egin dira aukera egon denean dagokion informazioa lortzeko NISAEren bidez (Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarrengarritasunerako nodoa). Bide horretatik informazioa eman duten administrazioak izan dira:

- Eusko Jaurlaritza
- Osakidetza
- Euskadiko hiru Foru Aldundiak
- EAEko hiru hiriburuak
- Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea

- ✓ Irizpide orokor gisa, baloratu egin da lan esperientzia administrazio publikoetan, erakunde autonomoetan eta haien mendeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan. Hau da, ez da baloratu lan esperientzia sozietate publikoetan, fundazioetan, enpresetan, zuzenbide publikoko korporazioetan eta oinarrien arabera baloragarriak ez diren gainerako erakundeetan.

- ✓ Ez dira baloratu:

- Irakats esperientzia edozein irakaskuntza motatan.
- Pertsona administrazio publiko batean aritu den aldiak, prestakuntza beka baten bidez edo enpresa pribatu batekin eginiko bitarteko kontratu baten bitartez (aldi baterako laneko enpresak, administrazio publikoei zerbitzuak ematen dizkieten enpresak...).
- UPV/EHUko lan kontratudunen lanbide kategorietan baliokidea duen lanpostu/eskala batean eginikoaldiak (adibidez, kirol teknikaria, itzultzailea, aparejadorea, arkitekto teknikoa, informatikako teknikaria, etab.).
- Aldi baterako zerbitzuak zerbitzu eginkizunen bidez eskuratutako lanpostuetan (baloratu diren zerbitzuak dira bitarteko izendapenean adierazitako lanpostuarenak).
- Behin-behineko langile gisa emandako zerbitzuak (Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 12. artikulua).

- ✓ Denboran bat datozen lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, behin bakarrik zenbatu da/dira aldia/k.



2. TITULAZIOAK

- ✓ Ez dira zenbazu graduondokoak, unibertsitateen berezko titulu edota diplomak, masterrak (berezko tituluak), ikastaroak eta abar. Doktoregoaren eta unibertsitate masterren kasuan (bigarren zikloa), baloratu da baldin eta lizentziatura/gradua aldi berean alegatu ez bada.
- ✓ Oinarrietan adierazten den bezala, ez da baloratu izangaiak sartzeko alegatu duen titulazioa, ezta titulazio hori baloratu daitekeen kasuetan ere. Adibidez, Administrazioen Eskalan parte hartzen duen norbaitek lizentziatura/gradua alegatu badu sartzeko, titulazio hori ez zaio baloratu, nahiz eta merezimenduen fasean ere alegatu den.
- ✓ Oinarrietan adierazten den bezala, maila handiagoko titulazio bat baloratu denean, ez dira baloratu titulazio hori lortzeko beharrezkoak diren beheagoko mailako titulazioak.
- ✓ Musika Ikasketek beren ikasketa plana dute; hauek izan dira aplikatutako baliokidetasunak:
 - Irakasle titulua eta lanbide titulua, 1942ko ekainaren 15eko Dekretuaren babesean emana, eta goi mailako irakasle titulua, irailaren 10eko 2618/1966 Dekretuaren babesean emana → Lizentziatura (uztailaren 8ko 1542/1994 Errege Dekretuaren 1. artikulua).
 - "XXXX" espezialitateko Musikako Ikasketa Profesionala teknikeri titulua, abenduaren 22ko 1577/2006 Errege Dekretuaren eta Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuaren babesean emana → Batxilergoaren baliokidea
 - Arte irakaskuntzen goi mailako tituluak, ondorio guztietarako, Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 2. mailan sartzen dira, eta graduoko unibertsitate tituluaren baliokideak izango dira (1614/2009 Errege Dekretua, urriaren 26koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako goi mailako arte irakaskuntzen antolamendua ezartzen duena).

3. HIZKUNTZAK

- ✓ Oinarri espezifikoetan adierazten den bezala, hizkuntza tituluetan aplikatutako baliokidetzak UPV/EHUko errektorearen 2012ko martxoaren 8ko Erabakiaren arabera egin dira, zeina hizkuntza ez-ofizialen baliokidetasunari buruzkoa baita. Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearen 2017ko maiatzaren 22ko Erabakiaren bidez eguneratu zen.
- ✓ Maila modu ofiziala egiaztatzen duten Cambridgeko ziurtagiriek (eta kontuan hartu ditugunak) honako adierazpen hau (edo antzekoa) jasotzen dute:

*"This is to certify that XXXXXX **has been awarded** Grade A/B in the Certificate of Proficiency/Advance/First in English".*

Letra lodiz nabarmendutako esamoldea agertzen da pertsonak aurkezten zen maila gainditu duenean. Ez badu gainditzen aurkezten den maila, baina lortutako puntuazioa beheagoko maila bati dagokion puntuazio tartean geratzen bada, Cambridgek ziurtagiri itxura duen dokumentu bat egin ohi du, eta bertan adierazpen hau adierazten da (edo antzekoa):

*"This is to certify that XXXXXX **has achieved** Grade A/B in the Certificate of Proficiency/Advance/First in English"*

Ziurtagiri horiek ez dira baloratu; izan ere, formalki, pertsonak ez du maila hori, nahiz eta hori lortzeko ezagutza egokiak izan.

- ✓ Hizkuntza bakoitzean, maila baten balorazioak maila baxuagoen balorazioa baztertzen du.